

INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI ARRETA EMATEKO ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIO PROTOKOLOA

2025EAN EGUNERATUA



ZARAUZKO UDALA



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Edukia

Sarrera	3
1. Zioen azalpena	4
2. Akordioak	5
3. Lege esparrua	6
4. Terminologia esparrua	9
5. Printzipio gidariak, irizpideak eta jarraibideak.....	13
6. Datuen babesa	17
7. Indarkeria matxistaren kasuetarako prozedurak Zarauzko udalerrian	18
7.1. SARBIDEAK: SARBIDEAK ETA DETEKZIO ZERBITZUAK	19
7.2. LARRIALDI EGOERA	21
7.3. PREMIA EGOERA	21
7.3.1. LARRIALDIETAN ESKU HARTZEKO PROZESUAN LAGUNTZEA	24
7.3.2. INFORMAZIOA ETA AHOLKULARITZA ETA DERIBAZIOA	24
7.4. ETENGABEKO EGOERA	26
7.5. SEXU ERASOEN KASUETARAKO ARRETA	30
7.5.1. GERTATU BERRI DIREN SEXU ERASOEN ARRETA	30
7.5.2. ORAINTSU GERTATU EZ DIREN SEXU ERASOEN ARRETA (10 EGUN BAINO GEHIAGO)	32
8. Erakundeen Arteko Koordinazioa	33
8.1. KOORDINAZIO TEKNIKOKO MAHAIA	33
1. Eranskina Indarkeria matxistako kasuetan harremanetan jarri beharko pertsonen direktorioa	36
2. Eranskina Udal, foru eta autonomia baliabideak.....	37
3. Eranskina Datu pertsonalak lagatzeko baimenaren akta	41

Sarrera

Zarauzko Udalak ibilbide luzea egin du berdintasunaren aldeko konpromisoan eta emakumeenganako indarkeria matxistaren aurkako borrokan. Hain zuzen ere, 20 urtetik hona berdintasun planak egin ditu, eta horietako bakoitzaren indarraldia amaitu ondoren berrituz joan dira (2004-2007, 2010-2014, 2016-2021 eta 2023-2027rako berdintasun planak).

Gaur egun indarrean dagoen IV. Planaren esku hartze ardatzen artean "Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak" jasotzen da. Plan horretan, tratu txarrak eta genero indarkeria jasaten dituzten emakumeei arreta emateko protokoloa berrikusi, eguneratu eta hedatu behar dela adierazten da. Beste helburu batzuk ere baditu, hala nola emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloko sentsibilizazioan, prebentzioan eta formakuntzan aurrera egitea, eta emakumeen eta nesken ahalduntzera bideratutako udal arretako eredu bat lantzea; biktimen kalteen banakako erreparaziorako eskubidea indartzea.

Gainera, Zarautzek Berdintasuneko Departamentu bat du, berdintasunari eta indarkeria matxistari lotutako gaietan aholkularitza eskaintzeko eta prebentzioa eta sentsibilizazioa lantzeko. Aldi berean, emakumeak ahalduntzeko programak garatzen dira, eta indarkeria prebenitzeko eta sentsibilizatzeko jarduerak eta jardunaldiak egiten dira martxoaren 8an, maiatzaren 17an eta azaroaren 25ean.

Erakundeen arteko koordinazio Protokoloa eguneratzea tresna bat izango da arreta zerbitzu publikoek biktimekiko harrera eta arreta hobea izan dezaten. Zerbitzuen arteko koordinazioa hobetzea ere izango du helburu, emakumeak berriro biktimizatzea saihestuz. Beste urrats bat indarkeria matxistarik gabeko udalerrri baten aldeko borroka izango da.

Alderdi hauek guztiengatik, protokolo hau egitea aurrerapausoa da indarkeria matxista prebenitzeko eta haren biktimei arreta emateko udal politikan, bai eta arreta ematen duten langileen etengabeko formakuntzan ere.

2025eko Otsaila

Zioen azalpena

Protokolo honi atxikitutako erakundeen ustez:

- Emakumeen aurkako indarkeria matxista **emakume izate hutsagatik zuzentzen da**, emakumeen portaerak eta adierazpenak alde batera utzita, eta **Giza eskubideenurraketa** larria da.
- Emakumeen aurkako indarkeria matxista botere harreman sozialak erreproduzitzen ditu; ondorioz, emakumeen eta gizonen arteko erlazioetan ere bere horretan irauten du **desberdintasun hierarkikoak**, eta emakumeak mendekotasun egoeran geratzen dira.
- Emakumeen aurkako indarkeria matxistak, bestalde, **komunitate osoari eragiten die**. Biktimen gertukoei (lagunak, senideak, bikotekide berriak, etab.), auzokoei eta herri-tar guztiei. Estrategietan barne hartu behar dira indarkeriaren ondorioak bizi dituzten pertsona horiek ere.
- Emakumeen aurkako indarkeria matxista **osasun publikoko arazo bat da**. Izan ere, biktimei eragindako kalteek sufrimendu edo galera fisiko, sexual, psikologiko eta sozialak dakartzate, baita galera sozioekonomiko edo ondarezkoak ere, eta, horren guztiaren ondorioz, okerrera egiten du indarkeria matxistaren biktimen osasunak. Biktimen barruan sartzen dira zuzeneko biktimak, indarkeria horren eraginpean dauden zeharkako biktimak eta biktima bikarioak.
- Nagusi den **sexu-genero-sexualitate** sistema bitarrera egokitzen ez den edo sistema horrekin bat ez datorren moduan portatzen edo adierazten den pertsona orori erezuzentzen zaio indarkeria matxista; esate baterako, LGTB!QA+ kolektiboetako kideei.
- Protokolo honek etengabeko hobekuntzarako duen bokazioa azpimarratu nahi da; izan ere, ez da dokumentu itxia. Aitzitik, protokoloa egokitu egingo da, haren jarraipena egiteko prestatu diren espazioetan **antzemandako beharren arabera**.

Sinatzaileak

XABIER TXURRUKA FERNANDEZ
ZARAUZKO UDALA

JOSE AGUSTIN AGIRRE ARANBURU
DONOSTIALDEKO ESiko ZUZENDARI GERENTEA (OSAKIDETZA)

XABIER PEÑA COCA
KOMISARIO BURUA- UROLA KOSTAKO ERTZAINETXEA

ANDREA GABILONDO CUÉLLAR
ZUZENDARI KUDEATZAILEA GIPUZKOAKO OSASUN MENTALEKO SAREA
(OSAKIDETZA)

1. Akordioak

LEHENENA. Parte hartzen duten erakundeek protokolo hau sinatzea, hura aplikatzeko benetako konpromisoaren erakusgarri.

BIGARRENA. Prozedurak jarraitzea eta eguneratzea koordinazio mahaietan, honako hauen parte hartzearekin: Berdintasuneko Departamentua, Gizarte Zerbitzutako Departamentua, Udaltzaingoa, Ertzaintza eta Osakidetza.

HIRUGARRENA. Etengabeko formakuntza sustatzea eta etengabe eguneratzea bizirik atera diren biktimekiko esku hartzean eragin zuzena duten azken lege aldaketei dagokienez.

LAUGARRENA. Esku hartzea etengabe hobetzearen eta biktimaren kontzeptua zabaltzearen alde egitea. Horretarako, formakuntza espezifikoak eskaintzea indarkeria matxistaren, arretaren eta esku hartzearen arloan, LGTBQIA+ kolektiboetako pertsonen aurkako indarkeria barnean hartuta.

BOSGARRENA. Zuzenean edo zeharka indarkeria matxista detektatzeko, prebenitzeko eta artatzeko zeregina duten langileen artean protokolo honen edukiak zabaltzea.

SEIGARRENA. Udalerrian indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen eta adingabeen kopuruari buruzko datuen erregistro bat izatea. Datu horien azterketaren helburua izango da ahalik eta ondoen ezagutzea zer populazio motari eragiten dion, beraien beharrak eta zailtasun dituzten laguntza eskatzeko prozesuan.

ZAZPIGARRENA. Emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitu, aurre egin, konpondu eta desagerraraztea helburu duten politikek berdintasun politiken barruanegon behar dute, eta euskal administrazio publikoetan emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskumena duten organoek, bakoitzak bere eskumen eremuan, lidergo eta koordinazio eginkizun orokorra bete behar dute. (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren VII. kapituluko 54.6 artikulua).



ZORTZIGARRENA. Gizarte Zerbitzuen eremuan eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren eremuan eskumena duten organoen arteko koordinazio espazioak sustatuko dira, arreta ereduak batera defini daitezten, esku hartzean genero ikuspegia txerta dadin eta arreta hobetzen lagunduko duten lankidetzaren mekanismo egonkorrago daitezten (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren VII. kapituluko 60.5 artikulua).

2. Lege esparrua

Protokolo hau erreferentziarako esparrua lege eremuan zabaldu eta aldatu ondoren eguneratzen da, eta hobetu egiten da, aurretik aurreikusita ez zeuden indarkeria matxistako hainbat modu sartzeko, botere publikoen jardura EAEn kokatuz.

Testuinguru horretan eta **emakumeen aurkako indarkeriaren** eremuan, lege esparru batdago, honako arau hauetan garatzen dena:

- a) 10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa, Sexu askatasunaren berme integralari buruzkoa.
- b) Ebazpena, 2021eko abenduaren 2koa, Berdintasunerako eta Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Idazkaritzarena, Berdintasunerako Konferentzia Sektorialaren 2021eko azaroaren 11ko Erabakia argitaratzen duena, genero indarkeria egon dela egiaztatzeari buruzkoa..
- c) 9/2018 Errege Lege Dekretua, abuztuaren 3koa, genero indarkeriaren aurkako estatu ituna garatzeko presako neurriena.
- d) Hitzarmena, Europako Kontseiluarena, emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitu eta haiei aurre egitekoa (Istanbulgo Protokoloa), zeina Espainiako estatuak 2014ko apirilaren 11n berretsi baitzuen eta indarrean baitago 2014ko abuztuaren 1etik.
- e) 2/2015 FORU ARAUA, martxoaren 9koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa (Gipuzkoa).
- f) 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena (EAE).
- g) 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero indarkeriaren aurka oso-



osoko babesa emateko neurriei buruzkoa.

- h) EAEn emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko erakundeen arteko III. akordioa.
- i) 12/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, genero indarkeriaren biktimak babesteko eta laguntzeko premiazko neurriei buruzkoa.

Era berean, **atzerriko emakumeen aurkako indarkeriaren arloan**, legeria hau dago:

- a) 4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzkoa.
- b) 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua, azaroaren 19ko 1155/2024 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa.
- c) 240/2007 Errege Dekretua, otsailaren 16koa, Europar Batasuneko estatu kideetako herritarrak eta Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioan zehaztutako beste estatu batzuetako herritarrak Espainian sartu, aske ibili eta bizitzeari buruzkoa

Adingabeen babesaren eremuan:

- a) 2/2024 Legea, otsailaren 15koa, Haurtzaroari eta Nerabezaroari buruzkoa.
- b) 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurka
- c) 8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, Haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzekoa. Lege horren azken xedapenetatik hirugarrenak aldatu egiten du 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa.

LGTBIQA+ kolektiboen pertsonen eskubideen esparruan:

- a) 4/2023 Legea, otsailaren 28koa, transexualen berdintasun erreal eta eraginkorrerakoa eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzekoa.
- b) 4/2024 Legea, otsailaren 15koa, pertsona transak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa.
- c) 234/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, transexualen dokumentazio administratiboari buruzkoa.
- d) Europar Batasuneko oinarrizko eskubideen gutuna (2000). 21. artikulua,



diskriminaziorik eza arautzen duena.

- e) 14/2012 Legea, ekainaren 28koa, transexualak genero identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa
- f) 9/2019 Legea, ekainaren 27koa, 14/2012 Legea, ekainaren 28koa, Transexualak genero identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa aldatzekoa.
- g) 234/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, transexualen dokumentazio administratiboari buruzkoa.

Desgaitasuna duten emakumeen babesaren esparruan:

- a) 8/2021 Legea, ekainaren 2koa, desgaitasuna duten pertsonei laguntzeko legeria zibila eta prozesala aldatzekoa.

Datuen babesaren arloan:

- a) 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.
- b) 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, pertsona fisikoak babesteari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa.

Azkenik, eta lege esparru horrekin bat etorritz, genero indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria zuzenari aurre egiten dioten **emakumeen eskubideak** ezartzen dira.

Ordena honetan aipatzen dira salaketa publikoen tratamenduari buruzkoak:


- Informazioa eskuratzeko eskubidea.
- Erasotzailearen aurrean ez deklaratzeko eskubidea, eta haren segurtasuna eta ongizate emozionala bermatzen duten baliabide guztiak erabiltzeko eskubidea.
- Gauza¹ itzultzeko, kaltea konpontzeko eta eragindako kaltearen kalte ordaina jasotzeko eskubidea.
- Duintasuna eta intimitatea babesteko eskubidea.

¹ Zuzenbidearen eremuan, "gauza" pertsona bat edo gehiago dituen harreman juridiko baten xedea da. Bai betebeharrak, bai eskubideak eta ondasunak "gauzak" dira maila juridikoan.

3. Terminologia esparrua

Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren kontzeptuak indarkeriazko boterearen adierazpen guztiak kontrolatzeko eta gauzatzeko adierazpenei egiten die erreferentzia. Adierazpen horiek **emakumeen eta gizonen arteko hierarkia sozialaren arabera** gauzatzen dira, hau da, "maskulinoa" "femeninoa"-ren ginetik dagoela suposatzean oinarritutako indarkeriazko jokabide guztiak.

Hona hemen, laburbilduta, indarkeria matxistari buruzko eskema bat:



Horrela, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bateginak, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartuak, eskumen eremu desberdinetatik artatu behar diren indarkeriaren forma eta eremuak zabalitzen ditu:

Emakumeen aurkako indarkeria matxista dira bikotekidearen edo bikotekide ohiaren aurkako indarkeria, familia barrukoa, sexu indarkeria, feminizidioa, emakumeen eta neskatilen salerosketa, sexu esplotazioa, emakumeen genitalen mutilazioa, behartutako ezkontzak eta beste praktika tradizional kaltegarri batzuk, hertsapena edo askatasun gabetze arbitrarioa, tortura, indarkeria instituzionala, jazarpena, genero indarkeria politikoa, indarkeria digitala eta sare sozialetakoa, obstetrikoa, sexu eta ugalketa eskubideen urraketa, bai eta emakumeen eta neskatilen duintasuna, osotasuna edo askatasuna urratzen duen edo urra dezakeen beste edozein indarkeria mota ere, nazioarteko tratatuetan, Espainiako Zigor Kodean edo estatuko edo autonomia erkidegoko araudian aurreikusita badago. Hori guztia, edozein eremu publiko edo pribatutan gertatzen dela ere, honako esparru hauetara mugatzen ez bada ere: familia, lana, hezkuntza, osasuna, kirola eta komunitatea, komunikabideak, aisialdiko eta jaietako espazioak eta ingurune birtuala.


Era berean, **biktimen kontzeptua zabaldu du:**

Emakumeen aurkako indarkeria matxistatzat hartzen da, halaber, biktimei laguntzen dieten pertsonen aurkako indarkeria, bai eta gertuko ingurunearen edo ingurune afektiboaren aurkakoa ere, bereziki seme-alaben eta beste senide batzuen aurkakoa, emakumea laidotzeko borondatearekin.


Adierazi beharra dago, 2/2015 Foru Arauan² indarkeria matxistak indarkeria sexista eta LGTBIQA+ kolektiboari zuzendutako **beste indarkeria matxista mota batzuk** barne hartzen dituen arren (lesbofobia, homofobia eta transfobia, esaterako), gaur egun udal, foru eta autonomia mailako zerbitzu publikoek **ez dute horrelako indarkeriei erantzuteko baliabiderik.**

Protokolo honek indarkeria horiei aurre egiteko moduak planteatuko ditu, eta, horretarako, erreferentzia esparru hau izango da. Esparru horretan, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren eremuak eta haren forma anitzak bereizten dira:

² 2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa



Jarraian, indarkeria matxistaren moduak definitzen dira³:




³ 1/2022 Legearen testu bategina, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legea bigarrenez aldatzen duena.


4. Printzipio gidariak, irizpideak eta jarraibideak


Ondoren, protokolo hau sinatzen duten erakundeen jarduketak gidatu behar dituzten printzipio gidariak azaltzen dira, erakunde bakoitzak Zarautzen gertatutako indarkeria matxistako kasuen aurrean duen eskumen eremuan, hain zuzen ere. Kalitatezko arreta integrala eta biktimak neurri guztien erdigunean jarriko dituen lortzeko funtsezkoa da ahalik eta esku hartze egokiena egitea, indarkeria horren ezaugarri espezifikoak kontuan hartuta. Printzipio gidariak jarduteko irizpide eta jarraibideetan zehaztu behar dira, bideragarriak izan daitezen eta praktikan ez dadin gidari eraginkor izan; horregatik, atal honetan jarraitzen den logikak honako hauek bereizten ditu:

- **Printzipioak:** jarduera horren **zergatia** adierazten diguten gida etikoak.
- **Irizpideak:** **zer** den, hau da, lehenetasuna ematea erabakitzen diren alderdiak jar-duera baten zergatia zehazten duen erabakia.
- **Jarduteko jarraibideak:** ekintzarako tresnak, ekintza gauzatzeko beste modu bateskaintzen dutenak.









Borondate askea errespetatzea baldintza bat da, eta beti aplikatu behar da. Horrenbestez, ekintza zehatzak egingo dira baldintza hori benetan betetzeko. Orokorrean, eragindako pertsonaren alde aurreko eta berariazko adostasuna behar da edozein ekintza egin aurretik. Honela gauzatuko da:

Lehenik eta behin, inplikaturako zerbitzuek modu egoki, erraz eta argian adieraziko diote osasun-zerbitzuen, zerbitzu soziosanitarioen, sozialen eta zerbitzu sozioekonomikoen erabilzailerari edo erabilzaille potentzialari, zeintzuk diren protokoloa sinatu duten erakundeek eskain ditzaketen neurri eta prestazio zehatzak. Beraz, horiek eskura izango ditu.

Dauden aukeren berri izan ondoren, emakumeak, bere borondate-gaitasuna guztiz erabiliz, berariaz adieraziko du neurri horiek libreki eta kanpoko baldintzatzailerik gabe onartzen dituela.

Biktimak borondate-gaitasunik ez badu —hamalau urtetik beherakoa delako edo gaitasun juridikorako laguntza-neurriak indarrean dituelako—, haren ordezkaritza legala duen pertsonak emango du baimena. Eta, halakorik ez badago, ministerio fiskalaren bidez izendatuko da, ekainaren 2ko 8/2021 Legean jarritakoaren arabera (desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko legeria zibila eta prozesala aldatzekoa), duen gaitasun juridikoa erabiliz.

Biktima adingabea bada, eta egoerak edozein motatako neurriak hartzea eskatzen badu, kautelaz hartu ahal izango dira, biktimaren ordezkari legalaren baimenik gabe, adingabearen interes gorenaren printzipioaren arabera.

Borondate askearen aplikazio orokorraren baldintza soilik kasu honetan ez da beteko: pertsonaren osotasun fisikoa edo osasunerako eskubidea eta/edo osasun publikoa babesteko beharrezkoa den laguntza sanitarioko prestazio batean, edo lege-mailako arau batek baimentzen duenean.

Kasu hauetan bakarrik ez da behar biktimaren edo haren ordezkaritza legalaren aurretiazko baimena laguntza sanitario edo soziosanitario bat emateko:

1. Osasun publikorako arriskua egotea.
2. Biktimaren edo haren ardurapeko mendeko pertsonen osasun fisikorako edo psikikorako arrisku larria egotea.

Prozedura Kriminalaren Legearen 259. artikulua arabera, delitu bat ikusi duenak salaketa jartzeko betebeharra dauka. Horri dagokionez, kontuan izan behar da Genero indarkeriaren eta sexu erasoen aurrean Euskadin nola jardun jakiteko jarduketa-gidak 3.3. puntuan Salaketa Judizialari buruz adierazitakoa. Esaten du salaketa jartzeko betebeharra ez dela absolutua. Alegia, indarkeria matxistaren biktimak artatzen dituzten medikuek aukera dute lesioen parte ez egiteko, eta ez dute egin behar, emakumea aurka dagoenean edo arrisku larrikeria eta berehalakorik ez dagoenean emakumearentzat edo mendeko pertsona zaurgarrientzat.

Biktimaren borondatea errespetatzearen arauak hiru salbuespen ditu:

1. Egoera horretan jarraitzeak dituen arriskuen larritasuna.
2. Mendeko egoeran dauden pertsonen larririk eragitea.
3. Emakumeak gaitasunik ez izatea erabakiak hartzeko (frogatu egin beharko da).

Ondorioz, eta azaldutakoaren arabera, indarkeria matxistaren biktimen arretan inplikaturako erakundeek errespetatu egin behar dute pertsonen borondatea (emakume biktimarena; edo biktima adingabea bada edo desgaitasun bat

edukitzeagatik laguntza-neurriak indarrean baditu, haren ordezkari legalarena), eskaintzen zaizkien asistentzia-neurriak onartzeko. Gainera, erakunde sinatzaileek ezin izango dituzte datu pertsonalak trukatu, baldin eta aurretik biktimak ez badu berriazko baimenik eman berari dagokion informazioa trukatzeko, edo lege-mailako arauen batek hala baimentzen ez badu.

Biktimak bere baimena emateko, oinarritzko informazioa eman behar zaio. Informazio horrekin zera lortu behar da: biktimak bereganatu eta ulertu duela eman zaion informazio guztia eta bere baimenak —edo baimenik ezak— dituen ondorioak. Hala egiten ez bada, indarkeria matxistaren biktima den emakumeak emandako baimena ez da librea eta informatua izango.

5. Datuen babesa

Inplikaturako erakundeek Datuak Babesteko Europako Erregelamenduari buruzko apirilaren 26ko 679/2016 Erregelamenduan araututakoa bete beharko dute. Administrazioen betebeharrak batzuk jasotzen ditu, datuak lagatzeko baimena ematerakoan kontuan hartu beharrekoak:⁴

LIBREA, ESPEZIFIKOA, INFORMATUA ETA ZALANTZARIK GABEA

- Erakunde zehatzak eta helburua zehaztea eskatzen da.
- Isiltasuna ez da inoiz onartzen adostasun gisa.

IDATZIZ JASOKO DA

- Berriazko adostasuna da.

ADMINISTRAZIOEK KOMPROMISOA HARTZEN DUTE, AHOZ EDO IDATZIZ

- Baimena ematen badu, arreta ematen dion erakundeak baliabideetara bidaliko du informazioa.
- Argi eta hizkera ulerkorrean informatzea.
- Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuen aurka egiteko eta datuak ezerezteko eskubideen berri ematea.
- 14 urtetik beherako adingabeek banaka eman dezakete baimena.

Inplikaturako zerbitzu publikoek errespetatu egin behar dute, oro har, biktimen borondatea – adin nagusikoak edo 14 urtetik gorakoak, eta 14 urtetik beherakoak badira, haien legezko ordezkariak –, hala badagokio, kasu bakoitzean eskain dakizkiekeen laguntza neurriei heltzeko.

Biktimei laguntzeko asmoz beharrezkoa bada **erakunde batek beste bati datuak lagatzea**, interesdunaren alde aurreko baimena behar da (berariazkoa eta idatzizkoa).

Inplikaturako eragileen artean:

1. Emakumeari informazio nahikoa, eskuragarria eta egokia emango diote, bilduko diren datuei buruz, datu horien tratamenduaren xedeari buruz eta datu horiek erabiltzeko ardura duten zerbitzu edo pertsonari buruz.
2. Emakumeari adieraziko diote zer garrantzitsua den datu pertsonalak jasoteko eta lagatzeko baimena ematea, eta datuen gainean zer eskubide dituen.
3. Zerbitzu bakoitzak baimen informatuaren akta bat izango du, datuak bildu eta lagatzeko. Beharrezkoa da nori eta zer datu lagako zaizkion zehaztea, baita datu horien tratamenduaren helburua ere. Ezin da adostasun generikorik eman.

Zerbitzu publiko inplikaturak errespetatu egin behar dute, oro har, adin nagusiko biktimaren edo 14 urtetik gorako biktima adingabearen borondatea (14 urtetik beherako adingabeen kasuan, horren ordezkari legalarena), hala nahi badute, eskaintzen zaizkien neurriak onartzeko. Protokoloaren erakunde sinatzaileek ezingo dituzte biktimen datu pertsonalak trukatu, baldin eta lagatzen diren datuen titularrak edo haren ordezkariak alde aurretik horretarako berariazko baimenik ematen ez badu, edo hori baimentzen duen lege-mailako araurik ez badago.

Kasu hauetan bakarrik ez da behar biktimaren edo haren ordezkari legalaren aurretiazko baimena titular diren datu pertsonalak komunikatzeko:

1. Osasun publikorako arriskua egotea.
2. Biktimaren edo haren ardurapeko mendeko pertsonen osasun fisiko edo psikikorako arrisku larria egotea; arrisku hori kasu bakoitzean baloratu behar da.
3. Lege-mailako arau batean aurreikuspen espezifiko bat egotea, pertsona jakin baten datu pertsonalak erakundearen artean komunikatu ahal izateko.



⁴ Osakidetzaren kasuan, hiru egoeretan utz daiteke alde batera datuak jakinarazteko aurretiazko baimena: 1. Osasun publikorako arriskua egotea; 2. Biktimaren eta/edo bere ardurapeko pertsonen osasun fisiko edo psikikorako arrisku larria egotea; 3. Erakundeen arteko komunikazioa ahalbidetuko duen lege-mailako arau batean berariazko aurreikuspen bat egotea (Pazientearen autonomia eta informazio eta dokumentazio klinikoaren arloko eskubide eta betebeharrak arautzen dituen azaroaren 14ko 41/2002 Legearen 9. artikulua)

6. Indarkeria matxistaren kasuetarako prozedurak Zarauzko udalerrian

Indarkeria matxistari arreta emateak esan nahi du ulertzen dela arreta zerbitzuetara iristen direnen atzetik historia bat dagoela, eta historia hori gutxi gorabehera onartua edo ukatua izan daitekeela. **Harrera** funtsezkoa da indarkeriaren bizipenei heltzen eta emakumeek errazago identifikatuko dituzten arazo zehatzei aurre egiten lagunduko duen esku hartzearen oinarriak ezartzeko (etxebizitza arazoak, arazo ekonomikoak, seme-alabekiko arazoak, eta abar).

Harrerak, neurri handi batean, emakumeek hartuko dituzten erabaki hauek zehaztuko ditu, eta hori gauzatzeko funtsezko alderdi bat dago: sintonia. Horrek esan nahi du maila emozional berean kokatu behar dela eta emakumearen emozioei ondoriozko erantzuna eman behar zaiela⁵. Teknika hori ez da esparru psikologikoan soilik erabili behar; aitzitik, edozein profesionalak aplika dezake, eta edozein elkarriketa egitea, salaketa bat jar-tzea edo epe luzerako esku hartzea erraztuko du.


Sintonia hiru zatik osatzen dute:

- Enpatia entzutea, erabilitako adierazpenak, tonua, gorputz adierazpena, biktimak erakutsitako emozioak eta abar jasotzeko.
- Profesionalak, entzuten duen bitartean, azaldutakoaren zein alderditan sakonduko duen baloratuko du, hautematen diren beharren arabera.
- Narrazioan zehar entzundakoa eta ikusitakoa itzultzea, pertsonak berak esandako hitz berberak erabiliz. Horrela, harrera ona egiteko funtsezkoak izango diren emozio guztiak aitortzen eta baliozkotzen dira.

⁵ Norma Vazquezek garatutako eta azaldutako kontzeptua

7.1. SARBIDEAK: SARBIDEAK ETA DETEKZIO ZERBITZUAK

Zarautzen indarkeria matxistaren biktimen zerbitzu publikoetan sartzeko guneak udal, foru eta autonomia zerbitzuak dira. **Arreta** guneez gain, zerbitzu batzuek berebiziko garrantzia dute indarkeria **detektatzeko**. Hori dela eta, hasierako detekzioak **eragin zuzena** izango du gero biktimekin egingo den esku hartzean.




Zarauzko **Gizarte Zerbitzuetako Departamentuak** biktimari **arreta integrala** eskaintzen dio, langile espezializatuen eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazioen sare osoarenostatu eskainiz, etab. Era berean, emakumearen aurkako indarkeria egoerek familiaingurunean dauden adingabeei ere eragiten diete, adingabe horiek balioesteko eta haiekin esku hartzeko lan bat eginez. Erasotzailearentzako arretari ere heltzen zaio esku-hartze sozialaren zati gisa.

Biktima artatzen duen Gizarte Zerbitzuetako langileak lankidetzan jardungo du Ertzaintzarekin, eta informazioa partekatuko du delitu penala ikertzeari eta argitzeari buruz. Biktimak berariaz baimendu ez duen informazioa partekatu behar bada, komeni da hari adieraztea zer jakinaraziko den eta zer ondorio izan ditzakeen, harekiko lotura mantentzeko.


Detekziorako **udal** zerbitzu nagusi gisa, Zarauzko **Udalak Emakumeen* Etxea* du, Zarauzko edozein emakumerentzako sarbide zuzena**. Bertan, emakumeentzako **aholkularitza** psikologiko eta juridikoko zerbitzuak eskaintzen dira, beste zerbitzu espezifiko batzuen eta emakume talde batzuen artean.

Adingabeen artean kasuak detektatzeari dagokionez, **Gaztelekua** oso **detekzio puntu garrantzitsua** da adingabeen arteko eraso matxisten kasuetan. Kasu horietan, beharrezkotzat jotzen da Gaztelekuaren eta Gizarte Departamentuaren arteko koordinazioa, adingabe horiek edo, hala badagokio, haien familiak bideratu ahal izateko eta, horrela, gizarte egoeraren orientazioa eta balorazioa egin ahal izateko.

Indarkeria matxistari arreta ematean, egoera hauek gerta daitezke:



7.2. LARRIALDI EGOERA



Arreta prozesuak denbora luzea behar duen larrialdi kasuetan, lehentasuna emango zaie seme-alabei modu integralean arreta emateari, jarduera esparruaren barruan eta larrialdiaren barruan indarkeriaren biktima gisa jasota. Etxeko irteera eskatzen duen arrisku handiko egoera bat baloratuz gero, eta baldin eta udalaren ostatu baliabidea egokia ez bada (emakumearen eta/edo adingabeen osotasun fisikoa ez bermatzeagatik), GLKZ⁶ zerbitzuaren laguntza izango da.

Arriskua, egoera emozionala eta fisikoa, adingabeen edo mendekoen presentzia, maskotak eta abar baloratuko dira.

7.3. PREMIA EGOERA

Egoera horretan ez da berehalako edo larrialdiko egoerarik behar, baina bai premiako esku hartzea edo erantzuna ahalik eta azkarren ematea. Une honi dagokionez, lau lehentasun bereizten dira: eskubideei eta baliabideei buruzko informazioa; gizarte laguntza; laguntza psikologikoa; eta salaketa, babesa eta arriskuaren lehen balorazioa.⁷

⁶ Ikus GLKZren kontaktua "2.eranskinean udal, foru eta autonomia baliabideak"

⁷ III. EAEko emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko Erakunde arteko Akordioaren arabera (2023), larrialdiko esku hartzea krisi egoera da, eta horregatik jaso dugu definizio hori.

Emakumeak identifikatzen ez badu ere, **larrialditzat hartzen da** honako egoera hauetakoren bat:

Emakumeak lesio nabarmenak ditu edo lesio horiek dituela susmatzen du.

- Emakumeak salaketa jarri du edo jarri nahi du erasotzailearen aurka.
- Emakumeak jakinarazi du etxetik irten nahi duela, eta beldur da erasotzailea ez ote den haserretuko, jazarriko duen, eta abar.
- Emakumeak harremana amaitu nahi du, eta hori arriskutsua da berarentzat.
- Emakumeak teknikariengana jotzen du, eta hark detektatzen du berehalako arriskuak daudela emakumearentzat.

Emakumeak dibertsitate funtzionalen bat du, kalteberatasun handiagoko egoeran jartzen duena.

- Emakumea haurdun dago eta bizi-arriskua dago berarentzat eta haurtxoarentzat.
